

# 1 Getaria ⇄ Donibane Lohizune
(Ipar Euskal Herria)




Getariako portutxotik abiaturik, etapa honek Euskal Kostaldeko hondartzak, surflariek hain ongi ezagutzen dituzten hondartzak, bisitatzen ditu. Zenitz, Lafitenia, Erromardia, uhin gune horiek bainu bat hartzeko pausaleku gerta dakizuekete, edo tarte batean paisaiari so egoteko. Amaieran, Donibane Lohizune gaineko ikuspegi ederrarekin helduko zarete helmugara.

**Distantzia: 9,2 Km**

**Zailtasuna** ■■□□□

Etapetako guneak:

1. Zenitz.
2. Lafitenia.
3. Erromardia.
4. Donibane Lohizune.

Interesguneak:

- ● Parlementiako uhina.
- ■ Senaia ezkutuak.
- ▲ Luis XIV.aren etxea.
- ✱ Donibane Lohizune eta Ziburuko portua.

TB: Turismo Bulegoa

TB GETARIA
Tel. 0033 559 265 660
www.ghethary-tourisme.com

TB DONIBANE LOHIZUNE
Tel. 0033 559 260 316
www.saint-jean-de-luz.com

TB ZIBURU
Tel. 0033 559 476 456
www.ciboure.fr



# 2 Saint-Jean-de-Luz ⇄ Hendaiako hondartza




Donibane Lohizunetik Hendaiara, ibilbideak Donibane Lohizuneko badiari jarraituz, ikuspuntu ederrak eskaintzen ditu. Zokoako itsasadar babestuaren gainean. Jarraian, Erlaitzeko errepideak, panorama ikusgarria eskaini ondoren, Hendaiako hondartzara eramanen zaituzte. Lekuaz betebetean gozatzeko, egunaren lehen orduetan korri ezazue erlaitza, autoen joan-etorri etengabeaz libratzeko.

**Distantzia: 11,3 Km**

**Zailtasuna** ■■■□□

Etapetako guneak:

1. Ziburu.
2. Zokoa.
3. Abbadia.
4. Hendaiako hondartza.

Interesguneak:

- ● Ravel etxea.
- ■ Zokoako gotorlekua.
- ▲ Erlaitzeko bunkerra.
- ✱ Abbadiako eremua eta gaztelua.

TB: Turismo Bulegoa

TB DONIBANE LOHIZUNE
Tel. 0033 559 260 316
www.saint-jean-de-luz.com

TB ZIBURU
Tel. 0033 559 476 456
www.ciboure.fr

TB URRUÑA
Tel. 0033 559 546 080
www.urrugne.com

TB HENDAIA
Tel. 0033 559 200 034
www.hendaye-tourisme.fr



# 3 1 bidea
# Hendaiako hondartza ⇄ Irun (Behobia)
Bidasoaren eskuin ertzetik




Azken pedaladak itsas ertzean, Hendaiako hondartza argitsuan zehar. Sokoburuko muturrak markatzen du lehorrerako itzulera; hala ere, ura du protagonista paseoak, oraindik, eta laketontzien aterpe den Txingudiko Badia zeharkatzen du, itsasoak Bidasoa ibaia besarkatzen duen lekua. Bidasoa ibaiaren Ipar Euskal Herriko ertzetik, Faisaien Uhartearen albotik pedaleatuz, beste hiri batean sartzen ari garela iragarriko digu Irun hiri bizi eta kosmopolitak; halaxe da, Behobiako nazioarteko zubia ikusten da horizontean.

**Distantzia: 8,5 Km**

**Zailtasuna** ■■□□□

Etapetako guneak:

1. Zokoburu.
2. Hendaiako tren geltokiraino.
3. Bidasoako Interpretazio Zentroa.

Interesguneak:

- ● Dunba harriak.
- ■ Hendaiako hondartza.
- ▲ Kanetako portua.
- ✱ Konpentziako uhartea.

TB: Turismo Bulegoa

TB HENDAIA
Tel. 0033 559 200 034
www.hendaye-tourisme.fr

TB IRUN
Tel. 0034 943 020 732
www.irun.org/turismo



# Gastronomia eta ostatuak

## Gastronomia

Gipuzkoako jatetxeetako pintxo eta plater ospetsuekin, Frantziako sukaldaritzako karta zainduekin eta Nafarroako lehengai bikainekin berreskuratuko da galdutako indarra. Euroziklo ibilbideak hainbat herri zeharkatzen ditu, eta bertako gastronomia ezagutzeko modua eskaintzen digu herri bakoitzak. Bideko geldialdiak une ezin hobeak dira jatetxeetan bazkari edo afari atseginak egiteko. www.euroziklo.com web orriko bilatzailearen bidez aurkituko gaituzu, eta zure ibilbide gastronomikoa antolatu ahal izango duzu.

## Ostatuak

Lehen aldiz, mugaz bestaldeko ostatuen eskaintza zabala duzu, zikloturistentzat zerbitzu bereziekin: bizikleta gordetzeko lekuak, gau bakar baterako direnak... www.euroziklo.com bisitatzera eta, bilatzaileari esker, zure ostatua aukeratzera animatzen zaitugu.

Bidasoako Interpretazio Zentroa
Iparralde, 63 - Santiago zubiko
Aduanaren eraikina zena, Hiribide
Zubiaren ondoan
20302 Irun

www.euroziklo.com



Gipuzkoak, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak bat egiten duten lekua bizikletaz ezagutzeko ibilbiderik onena











## 3 · 2 bidea

## Hendaiako hondartza ⇄ Irun (Behobia)
### Bidasoaren ezker ertzetik




Etapa aberatsa eta bariatua, zeharo, laburra izan arren. Ozeanoaren handitasunaz gozatzetik Bidasoa ibaiko paduren intimitatera igaroko zarete. Txingudiko Badiaren lasaitasuna mirestu ondoren. Kostako Donejakue Bidearen hasiera den Santiagoko zubiak Irunen sartzera eta Oiasso hiriaren iragan erromatarra deskubritzera gonbidatzen gaitu, portu erromatar zaharra, eta bai eta gure ibilbidean aurrera egitera ere, Bidasoa ibaiaren ingurutik Behobiaraino.

Distantzia: 8,8 Km

Zailtasuna

Etapetako guneak:

1. Zokoburu.
2. Hendaiako tren geltokiraino.
3. Bidasoako Interpretazio Zentroa.
4. Behobia.

Interesguneak:

- ● Dunba harriak.
- ■ Hendaiako hondartza.
- ▲ Kanetako portua.
- ✶ Konpentziako uhartea.

TB: Turismo Bulegoa

TB HENDAIA
Tel. 0033 559 200 034
www.hendaye-tourisme.fr

TB IRUN
Tel. 0034 943 020 732
www.irun.org/turismo

## 3 · 3 bidea

## Hendaye ⇄ Hondarribia




Bariante horrek Hondarribia ezagutzeko aukera ematen du, Euskal Herriko itsasertzeko porturik ederrenetako bat, bai eta horren alde zaharra ere. Hendaiako kirol portutik, zure bizikletarekin irten zaitezke transbordadorean, eta Hondarribira heldu, hodartzaz gozatzen jarraitzeko.

Distantzia: 4,2 Km

Zailtasuna

Etapetako guneak:

1. Hendaiako Turismo Bulegoa.
2. Hendaiako itsasertza, garraio-portua.
3. Hondarribirako transbordadorearen ontziralekua.
4. Hondarribiko kaia.

Interesguneak:

- ● Hendaiako kirol portua.
- ■ Hondarribiko alde zaharra.
- ▲ Hondarribiko kaia.

TB: Turismo Bulegoa

TB IRUN
Tel. 0034 943 020 732
www.irun.org/turismo

TB HONDARRIBI
Tel. 0034 943 643 677
www.bidasoaturismo.com

## 4

## Irun (Behobia) ⇄ Lesakako zubia




Espainiako lehenengo pedaladak, Bidasoa ibaiaren ondotik; Irundik, trenbide zaharretik, Bidasoako Bide Berdean zehar. Lur egokia da mendi-bizikletentzat, eta hasiera-hasieratik gonbidatzen gaitu natura ikusgarrian barrena Berako bidea deskubritzera, Lesakako zubiraino.

Distantzia: 16,1 Km

Zailtasuna

Etapetako guneak:

1. Bidasoa.
2. Berako zubia.
3. Lesakako zubia.

TB: Turismo Bulegoa

TB IRUN
Tel. 0034 943 020 732
www.irun.org/turismo

TB LESAKA
Tel. 0034 948 637 862
www.consorciobertiz.org

## 5

## Lesakako zubia ⇄ Bertizko Jaurerria Parke Naturala




Bigarren etapa dugu, Espainiako lurretan, beti Bidasoa ibaiaren ertzean. Lurrezko eta porlanezko bideak txandakatuz, Bidasoaren bihurguneei jarraituz, Sunbillara helduko zarete; han, izar itxurako ikuztegi edo latsagi bitxi bat aurkituko duzue. Doneztebeko hiriak norabide aldaketa ezartzen digu: oraindik zenbait kilometro ekialdera, Baztan errekaren ibarrean, eta Bertizko Jaurerriko Natur Parkera helduko gara.

Distantzia: 24,8 Km

Zailtasuna

Etapetako guneak:

1. Lesakako zubi berrian.
2. Sunbilla.
3. Doneztebe Santesteban
4. Bertizeko Jaurerriko Natur Parkearen.

Interesguneak:

- ● Zabaletako dorrea.
- ■ San Juan Xar.
- ▲ Bidasoaren gaineko zubia.
- ✶ Inzakardi parkea.
- ○ Oieregiko Erreparatze jauregia.
- □ Bertiz.

TB: Turismo Bulegoa

TB LESAKA
Tel. 0034 948 637 862
www.consorciobertiz.org

TB SUNBILLA
Tel. 0034 948 450 071
www.consorciobertiz.org

TB DONEZTEBE
Tel. 0034 948 451 342
www.consorciobertiz.org

OIEREGI-BERTIZEKO NATUR PARKEA - NAFAR GOBERNUAREN TB
Tel. 0034 948 451 342
www.consorciobertiz.org

## Zer da Euroziklo?

Gipuzkoak, Nafarroak eta Ipar Euskal Herriak bat egiten duten lekua bizikletaz ezagutzeko ibilbiderik onena da Euroziklo. Itsasertza, hondartzak, errekak, mendiak eta parke naturalak aurkituko dituzu Bidasoa ibaiaren ertzeko kultur ondare garrantzitsu eta gastronomia bikaineko ibilbide dibertigarri eta osasungarri horretan. Bizikletentzako bideak eta bide berdeak ditu ibilbideak; bai eta oinezkoentzako espaloiak ere, eta ibilgailu motordunak debekatuta daude.

## Europako mugaz gaindiko proiektua

Espainiaren eta Frantziaren arteko mugaz haraindiko proiektua da Euroziklo ibilbidea. Zehazki, Norvegiako iparraldeko lurmuturra Sagresekin (Portugal hegoaldea) lotzen duen mugaz haraindiko Euro Velo Route 1 Atlantic Coast Route ibilbide luzearen 79 km-ko zatiari dagokio, eta Ipar Euskal Herria, Gipuzkoa eta Nafarroa zeharkatzen ditu. .

## Zer dira EuroVelo ibilbideak?

EuroVelo, Europako ziklo-ibilbide sarea. Txirrindularien Europako Federazioak (ECF) Estatuko eta eskualdeetako kideen lankidetzarekin kudeatutako proiektu bat da. Gaur egun, 45.000 km baino gehiago osatzen dituzte bizikletentzako bideek, eta milaka kilometro gehiago ere badaude, egokitzeko.

euro ziklo

